

Goi

Goierritarra aldizkaria

390 zenbakia 2010eko azaroak 5



**AUTO
ELEKTRIKOA
ATAUNEN**

Pottokak eta Mendiko zaldiak

MENDI GARBITZAILEAK BAINO GEHIAGO



VIAJES
ABIO

BIDAIAK
www.abio.es

badator
ELURRA

Kale Nagusia, 38
T 943 80 53 11
abio@abio.es



efaktura



Aitor Sarriegi

Aspaldiko! Bizi al haiz? Azkena elkarrekin tokatu ginenean Beasaingo plazape berrituan izango huen, Haitiren aldeko afarian. Jende mordoska bildu huen, eta astean zehar ere uste diat izan zela zalapartarik.

Berezko arrazoiari eta lanean aritu zen jendeari zor, poztekoa duk konbokatoria-ahalmena.

Zer pentsatua eman zidaan ordea. Ez diat inoren kontra egin nahi, baina herrian bestelako ekintzetarako askorik mugitzen ez den jende asko ikusi nuela egingo nike apustu. Ulertzen didak, handik hiru kilometrora esaterako, bolondres andana lanean aritu huen milaka lagun bildu zituen jaialdian. Aurpegi ezagunak asko, batean edo bestean beren herrietan ikusi ditugunak. Pena duk hain eremu txikian horrelako bi gauza bat etortzea.

Ohitu gabe gauden giroan kantatu genian. Ez diat esango jende euskaldunik ez zegoenik, baina handik aste-

Okerrena duk guk ulertzen genituela haien erreferentziak, txisteak... baina, hik uste al

duk ulertuko lituzketela beraiek gureak?

betara Usurbe antzokia bete zutenetako zenbat ote zeudean plazapean? Edo, hobeto esanda, plazapekoetatik zenbat Usurben? Afalosteko monologo saioak ere zer pentsatua eman zidaan. Ez diat nik bere borondatea jarri zuen monologistaren aurka egin nahi, errespetatzen diat bere ahalegina. Baina nagok, haren erreferentziak eta publikoaren zati handi batenak hurbilekoagoak direla Belen Esteban eta enparauekin guk dauzkagunekin baino. Eta herri berean. Okerrena duk guk ulertzen genituela haien erreferentziak, txisteak... baina, hik uste al duk ulertuko lituzketela beraiek gureak?

Behin erreferentzia espainolekin hasita, nola ahaztu hil berri omen den Paul olagarroa. Plazapean jan genian, pipermin eta olioarekin. Ederra zegoan.



Iñaki Apalategi

Gogoan diat bai Beasaingo plaza azpikoa. Zer pentsatu ere ematen zidak ordean, olagarroa jan, ederki jan diagu, ondo mastekatuta eta digerituta diagu ikur hori.

Egia duk Usurbe Antzokia astebete beranduago bete zutenetatik jende gutxi zegoela plaza azpian, baina egia duk baita ere Ordiziako jaialdiak Paul olagarroa ere lanean jartzen zuela, alboan zeuzkan bi banderatzok Eskozia ala Haiti izanda, nahiz eta lehenengoaren tokian ez lukeen Eskozia behar.

Zer pentsatua ematen zidak, baina ez ote zioagu beste buelta bat eman behar? Zera esan nahi diat, alde batetik, biok garbi diagu 'normala' zela Beasaingo plazapeko jende perfil baten gehiengoa, egoera ikusita. Beraz, horri zertan bueltarik eman ez diagu. Beste alde batetik, ez gintuan

Enpatiarik adieraztekotan, ez al huan

Haitirekikoa erakutsi beharrekoa? Olagarroa

bezala, banderak aukeratzen hasita gaudek.

gure giroan, eta gure giroan izanda ere, kantatzeko moduko egun/tokian ere ez, baina txaloak izan genizkian, eta ez distira handia aterata gainera. Esan nahi diat, ulertu ez, baina aintzakotzat hartu gintuztela.

Haitirekiko elkartasun sentimendua garatuta duen jendeak etxekoarekiko enpatia ere garatua izan behar dik, neurri batean. Edo agian ez: Usurbe Antzokiko saioan Igor Eguren 'Belen Esteban' izena gai bezala eman zioan Ainhoa Mujikari. Hara non konturatzen naizen enpatia ez dela beharrezkoa erreferentziak izateko. Orduan, plaza azpian etxeko kultura eta ondarearekiko enpatiarik ba ote zegoan? Baina enpatiarik adieraztekotan, ez al huan Haitirekikoa erakutsi beharrekoa? Hura bakarrik. Olagarroa bezala, banderatzok aukeratzen hasita gaudek.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Denetik (XLIII)

Maizpide euskaltegia

...eta hori gutxi balitz, amona haurdun!

Kaixo, lagunok! Gaurko saioa ondorengo esaldiari erreparatze-ko eskatuz hasiko dugu:

✗ *Astelebena, izugarritzko ajea; eta hori gutxi balitz, euskal talde guztiek porrot atzoko futbol jardunaldian!*

Zuzena ote da futbol zaleren batek (*futbol-ero*, agian?) egin-dako adierazpen hori? Bada, ez! Zuzena izan dadin **bezala** aditzondoa behar du!

✓ *Astelebena, izugarritzko ajea; eta hori gutxi balitz bezala, euskal talde guztiek porrot egin zuten atzoko futbol jardunaldian! (egokia)*

Berdin-berdin ondorengoekin:

✓ *Hau egoera gurea, Eneko: aita, ospitalean banka bautsita; ama, obean buruko minari eutsi ezinik... eta hori gutxi balitz bezala, aitona burua galtzen basita!*

✓ *Bibarko Atariko Proba eginda ekartzeko agindu digu Trinik; eta hori gutxi balitz bezala, eskutitzen bat ere egi-teko!*

✓ *Dedio, Miel! Eta hori gutxi balitz bezala, amona haurdun! Hau miseria!*

Dena den, kontuz! Gutxi balitz forma, bezala gabe, erabil daiteke, baina beste egoera batean, beste zerbait adierazi nahi dugunean. Adibidea:

✓ *Entzun ezak ondo, seme: eman diadana gutxi (izango) balitz, bueltan etor badi eta gebixeago emango diat!*

Eta zorioneko bezala honek ematen dizkigun buruhaustek gutxi izango balira bezala, ohiko beste akats batzuen berri ere emango dugu. Ikus itzazue adibideak:

✗ *Idi txuletak nabi ditut, Antonio!*

- Zenbat bezala? (*desegokia*)

✗ *Gure alaba Parisera joan da, "au-pair"!*

- Neskame bezala? (*desegokia*)

Esan beharrik ere ez dago galdera horietako bezala hori sobera dagoela! Gaztelaniaren eraginez egiten den akats hori maiz antzean entzuten baduzue, badakizue, zuzendu!

Zuen alaba ikasle bezala aritu al zen Lazkaon

Izenburua irakurrita hauxe da gure ondorioa: behar ez zenean erabili dugu, beste behin, 'bezala' hori! Hona adibide gehiago:

✗ *Eukene Irakasle bezala aritu da Ordiziako ikastolan. (desegokia)*

✗ *Nik, 'Goxo-goxo' elkarteko lehendakari bezala, ez daukat alkateari baimenik eskatu beharrik! (desegokia)*

✓ *Irakasle aritu da Ordiziako ikastolan. (egokia)*

✓ *Nik, 'Goxo-goxo' elkarteko lehendakari naizen aldetik, ez daukat alkateari baimenik eskatu beharrik! (egokia)*


Konturatuko zineten zeren ondorio diren akats horiek, ezta? Bada, ondorengo ere ez da oso txukuna!

✗ *Babarrunak eta garbantzuak bezalako eltzekariak merkatu egin dira European. (desegokia)*

✓ *Hainbat eltzekari merkatu egin dira European, adibidez / besteak beste / hala nola / esate baterako, babarrunak eta garbantzuak. (egokia)*

Eta lehen azukre-kozkorrei buruz esan dizuedana gutxi izango balitz bezala, aurrerantzean ezingo duzue litxarreriarik jan!

Hau sufrimendua, dedio! Ni bezala ez da, bada, ume asko izango...



Joxe Joakin pediatra, zintzo asko, aholkulari lanetan!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Entzun, Iker! Eman dizudan 2 euroko txanpona gutxi balitz, bueltan etorri gehiagoren bila!
2. Gijongo Sporting taldea Real bezala dabil: pattal!
3. Kaleko bizimoduaz nazkatuta, nahiago omen du Urbian artzain bezala.
4. Tomate hauetatik zenbat bezala jarriko dizut?
5. Sahararren egoera oso larria da. Ia baliabiderik ez izatea gutxi balitz, munduko agintariekin ez diete batere lagun-tzen!

OHARRA: hirugarrena eta laugarrena ez dira zuzenak (bezala hori sobera dute!); bosgarrengoa, berriz, gutxi balitz bezala behar du!



kutxa

“Ziurtagiriari esker, lanaren kontrola hobea da orain”

Itziaroko Hotel Kanalak duela hiru urte lortu zuen “Q”a kalitate ziurtagiria, hotelaren kudeaketan eta administrazioan hobekuntzak egitearren. Krisiak gogor jo eta jotzen badu ere, hotelean uste dute ziurtagiriak onurak ekarriko dizkiela. Hotel Kanalak bederatzi urte daramatza irekita, eta hamabi logela dauzka. Mota guztietako bezeroak iristen dira lokalera, tartean inguruko enpresetako langileak, industriagune baten ondean izanda. Hori dela eta, urte osoan zehar lan egiten dute. Ana Sanchez bertako kalitate arduradunak dioenez, krisiaren eragina nabaritu dute azken urteotan, baina bezeroen gogobetetasuna handia da.

Zergatik egin duzue turismo arloarekin lotutako kalitate sistema eta programa baten alde?

Gomendatu egin ziguten, eta urrats hori ematea erabaki genuen. Gure lanaren kontrola eramaten eta gure zerbitzuak hobetzen lagunduko ligukeen kalitate sistema ezarri nahi genuen, nahiz eta lan hori lehenago ere egiten genuen. Aldea da orain egiten diren lan guztien eta ezarritako ditugun kontrol sistema guztien jarraipena egiten dugula.

Zein abantail ekarri dizue “Q”a turismo kalitatearen ziurtagiri sistema bat edukitzeak?

Lan egiteko moduan hobekuntzak, batez ere.

Garantia bat da, nahiz eta lan gehiago sortzen duen. Baina, nolanahi ere, gauzak hobeto antolatu, koordinatu eta kontrolatzeko modua da.

Ziurtagiriaren ondorioz, barne hobekuntzak zein izan dira? Antolaketan?

Kudeaketan? Azpiegiturretan? Antolaketari dagokionez, esan dezakegu orain koordinazio hobea dugula eguneroko lanean. Kudeaketari dagokionez, hobeto antola-



tuta gaude, eta kontrol gehiago dago lanetan. Azpiegiturretan, ordea, ez da inolako hobekuntzarik egin. Berez, lehen ere oso ondo egiten genuen eta!

Eta bezeroaren gogobetetzeari dagokionez, hobekuntzarik izan da?

Egia esanda, ez dakigu. Logela bakoitzean bezeroaren gogobetetzea neurtzeko inkesta jartzen dugu, eta garbi dago bezeroak pozik daudela zerbitzuarekin, kokapenarekin eta instalazioekin. Bezeroek ez dituzte, berez, hobe-

kuntzak proposatzen edo iradokizunak egiten, baina orain dena daukagu dokumentatuta, eta grafikoak eta estatistikak atera ditzakegu horrela. Hori guztia, gero, egiten dizkiguten auditorietan aurkeztu behar dugu.

Ziurtagiria izanda lortzen den onurak edo abantailak esaldi bakar batean laburbildu behar-ko bazenu, zer esango zenuke?

Esan behar dugu ez dugula bezero gehiago sumatu, eta lan handia dela ziurtagiriak eskatzen duena, baina kanpora begira, eta gure

lanari begira, garantia bat da.

Gomendatuko zenieke beste enpresariei kalitate ziurtagiri batekin lan egitea?

Ez dakit. Egia esanda, helburua baldin bada salmentak igotzea, ez, hau ez delako mauka. Baina gaitzatzeko arloetan, bai.

Uste duzu “Q”a turismo kalitatearen ziurtagiria izanda lehia-korrangoak zaretela?

Hala espero behintzat. Bezeroek ez ohi dute ziurtagiriari buruzko komentariok egiten, baina inguruan gu gara kalitate ziurtagiria daukagun bakarrak, eta uste dut hori, berez, garrantzitsua dela.

Zein da, zure ustez, “Q”a turismo kalitatearen kudaketa sisteman ezarritako gaitasunik garrantzitsuen edo baliagarrien?

Gure lan guztiaren antolaketa eta kontrol dokumentatua. Baita bezeroaren gogobetetasuna ere. Orain badakigu etortzen diren gauzak, esaterako jangaiak, zein tenperaturan etortzen diren, nola... lehen horixe bera egiten genuen, baina ez genuen derrigortuta. Orain, dena apuntatuta gertatzen da. Kontrola hobea da horrela.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismorako Euskal Agentziarekin batera, enpresarien esku jarri ditu lehiakortasunean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak. Adibidez:

Praktika Onen Egitasmoa. Helburua da enpresarien profesionalizazioa hobetzea, eta helmuga turistikoa gailu kontzientziaztea. Euskadin 323 establezimenduk dute Turismo Kalitatearekiko Konpromisoa Agiria.

Turismo Kalitatearen “Q”aren egitasmoa. Egitasmo honen bidez bezeroen gogobetetasuna eta haien aurreikuspenak beteko direla ziurtatzen da. Euskadin 278 ostaturik edo jabetzek dute “Q”a ziurtagiria.

Bikaintasunaren EFQM Ereduen egitasmoa. Egitasmo honen bidez kalitatearen bikaintasuna lortzeko bideak jartzen dira. Euskadin 16 establezimendu parte hartzen ari dira.

EUSKADI *Goya egazu*

Jarri “Turismo Kalitatearen Q”a zure establezimenduan!

94 6077586
94 4047470



www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

BASQUE TOUR

turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo

EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATUTZATZA ETA TURISMO SAILA




GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

EUSKALIT
Bikaintasunarekiko Euskal Fundazioa
Fundación Vasca para la Excelencia



Aitor Calvillo



“Beharrik sortzen ez den bitartean eroso sentituko dira Euskal Herrian ele bakarrak”

Goiztiri AEK-ren zuzendaria izan da urte askoan Aitor Calvillo. AEK-ren barruko beste lan batzuetan arituko dra orain ordiziarra. Euskararen egoeraren errepasoa egin dugu.

Goiztiri AEK-ren zuzendaria izan zara azken 8 urteotan.

Urte hauetan guztietan, euskararen egoera aldatu al da?

Aldatu-aldatu niri ustez gehiegi ez. Euskararen erabateko normalizazioa eskuratzeko bidea luzea da oraindik eta egun ditugun Hizkuntza Politikarekin are luzeago egingo zaigu oraindik.

Zertan egin du aurrera?

Ezagutzari begira esan liteke kopuruetan behintzat aurrerapauso nabarmenak eman direla. Euskararen korpusari dagokionez ere aurrerapausoak nabariak dira, merkataritza planak tarteko, lan munduan Euskara planak indartu direlako...

Eta atzera?

Urte hauetan guztietan ikasle ugari pasa dira euskaltegietatik eta emaitzak onak izan direla ezin ukatu. Dena den, kalean gero ez du horrek islarik izan eta bitartean inguru artifizialak sortu behar izan ditugu, gainera (mintza laguna egitasmoak...).

Zerk kezkatzen zaitu?

Azken urteotan erlaxazio bat eman ez ote den kezkatuta nago. Jendeak euskara ikasi bai baina horrekin konformatzen delakoa nago (Hezkuntza arautuko ikasle nahiz helduetan). Titulua eskuratzeari begirako euskaldunak sortzen ari garelakoan nago, lana topatzeko erabiliko duena gero baina ez benetako Euskal hiztun izateko.

Zerk pozten zaitu?

Euskaraz egunkaria irakurtzeko aukera izateak, telebista euskaraz ikus-entzuteko aukera izateak eta irratia euskaraz entzuteko aukera izateak. Informazioa lokala euskaraz jasotzeko aukera izateak, oro har.

Zertan jarri behar ditugu indarrak?

Nik dudarik ez dut karga guztia ez dugula guk euskaldunok bakarrik bizkar gainean jarri behar, baina politikoen jarrerak aldatzen ez diren bitartean euskaldunok kontzientziatu beharko dugu guk erabiltzen ez badugu besteek nekez ikasiko dutela. Konplejoak alde batea utzi eta euskaldun izateagatik harro gaudela erakutsi behar dugu, hori bai modu xume batean harrokeriarik gabe.

Euskara ikastea zaila omen da.

Galdetu iezazue bada asteazkenean bertan Bixi-Bixi irratsaioan solaskide izan genuen poloniar jatorriko 'Katari, edota Senegaldik etorri eta urteak Ordizian bizi den Modou-ri. Gustuko aldapan nekerik ez!

Jakin bai, baina erabili ez. Zertan huts egiten da?

Nik garbi daukat beharrik sortzen ez den bitartean eroso sentituko direla Euskal Herrian ele bakarrak direnak. Beraz, alde batetik behar hori Administrazioak sortu beharko du benetako Hizkuntza Politika eraginkor bat martxan jarritz eta gero, edozein lekutan euskaraz lasai aritzeko aukera dugunean konplexuak alde batera utzi eta aritu.

Haurrek, zer ikusi hura ikasi.

Behin eta berriz aipatzen dugu transmisioak hizkuntzaren erabileran duen garrantzia. Zenbat aldiz ez ote nien entzungo hainbat gurasori euren euskararekiko konpromisoa asetuta zegoela seme-alabak ikastetxeetara bideratuta. Kaka-zaharra. Nola hitz egingo dute bada gero euskaraz horiek, euren erreferente nagusiak, gurasoak, beste hizkuntza batean mintzo badira?

Euskara salbo ikusi arte, ez dut...

Etsiko! Nahiz eta galbidean dagoenik ez dudan uste.

Euskal Herrian euskaraz, hitz egiterik ez bada...

Horrek lagunduko liguke akaso, orain ez urte asko bezala, zein altxor dugun benetan konturatzeko eta bere alde lan egiteko kontzientziatu eta elkartzeko.



Pottokak eta Mendiko zaldiak, mendi garbitzaileak baino gehiago

Mendian ibiltzen diren behorrak eta zaldiak, mendia garbi mantentzeko erabiltzen badira ere, beste hainbat erabileratarako erabiltzen dira. Euskal Herriko Mendiko zaldia, haragitarako hazten dituenik ere bada adibidez. Horietariko bat da Jabier Aizpeolea zegamarra. Batez ere Italiara saltzen du. Euskal Arrazako Pottoka berriz, 'lorazain' ona izateaz gain, aisialdiko ekitaziorako ere bideratu daiteke, hezi ondoren. Horren adibide da Gipuzkoako Pottokazaleen Elkartek Otzaurteko gainean jarri duen zaldi-heztegiaren helburuetariko bat. Bi adibide gertutik ezagutuko ditugu.

Jabier Aizpeolea zegamarrak mendiko zaldiak haragitarako hazten ditu

Gasteizen bizi den Jabier Aizpeolea zegamarrak txikitatik du zaldiekiko zaletasuna. Ondo gogoan du, bost bat urte zituenean, elurra mardul bota zuenean, osabak, zaldiak baserrira ekarri zituen menditik. Hurrengo egunean, Jabier jaikitzerako, aitona, azokara saltzera eramanean zituela, Jabierren penatarako. Dena den, ahal izan zuenean, zaldiak, Jabierrek berak erosi zituen. Gaur gaurkoz, bere plazerrik handiena da mendi aldera bueltatxo bat eman eta bere behorak ikustea.

Gaur egun harakina da, berak hazitako labeldun behi-haragia saltzen du, baita zaldi-haragia ere. Kumeak hazi eta haragitarako saltzen ditu. Hemen zaldi-haragia jateko ohitura handiegirik ez dagoela dio. Gasteizen lau lekutan saltzen dute zaldi-haragia. Ermuan, Iruñean... ez da erraza zaldi haragia erostea. Dena den, Jabier Aizpeoleak kapritxoaz hazten ditu zaldiak haragitarako eta aurkitu dio irteera zaldi-haragiar.

Italia eta Valentzia aldea merkaturik onenak

“Etekin bat atera nahian ibili naiz beti. Ea etekina nondik aterako. Hemen bertan harategi batzuetan saltzen da zaldi-haragia, baina oso gutxi. Ni umea nintzela, harategi asko zen 3.000-4.000 biztanletik gorako herri guztietan ziren. Gaur egun zaldi haragia gehiena saltzen den lekua, Mediterraneo inguruko herrialdeak dira. Italia eta Valentzia, Castellon, Bartzelona inguru hori. Toki horietarako prestatzen dut gehiena”, dio Aizpeoleak. “Europar herrialde gehienetan ez dago ondo ikusia zaldi-haragia jatea. Guk txakurra jango bagenu bezala da zaldia jatea. Norbere lagun bezala dira zaldiak eta ez dute onartzen zaldia jatea. Hemen ere



gutxi jaten da, baina lehen askoz ere gehiago jaten zen. Lehenago gose gehixeago ere pasatzen genuen eta”, gaineratu du.

Zegamarrak aitortu digunez, “zaletasuna da behorzaileena. Hortik bizi denik ez dut ezagutzen nik. Jaio egin behar da gustatzeko. Gu nola mendikoak garen, hortik etorriko da gure zaletasuna”.

Haragi ona

Haragiari dagokionean, behi edo txekor haragiarekiko ezberdintasun handia ote dagoen galdetu diogu zegamarrari. “Ez zaio antzik ematen. Txahala ere, larretik zuzenean hiltzen baduzu, maskala izaten da. Zaldia ere berdin. Baina pentsuarekin, txahala bezala gizenduta haziz gero, ez zaio antzik ematen. Ganaduzalerik onenari plateran jarrita, ez dio antzematen. Denok azkarrak gara, baina nik neronek behintzat ez dut antzematen. Hezurrean antzematen zaio, baina zaporean ez. Aurreko

ke bi pisutan, baina zaldirik ez. Debekatu egin dute eta horrek asko garestitzen du garraioaren kostua. Hilda bidaltzen ari gara orain, eta merkexego ateratzen da. Baina hilda eramanez gero, berehala komertzializatu behar da, ez du gordetzeko balio. Kamioiak 20 bururen-tzako daude prestatuta. 100 kilokoa edo 700 kilokoa izan, portea berdina da. Portea ondo irtetzeko, 500-700 kilokoa egitea komeni da, ahalik eta handiena”, azaldu du zegamarrak.

Handiagoa

Euskal Herriko Mendiko Zaldia deitzen zaion arrazako zaldiak hazten ditu Aizpeoleak. Hori bai, “araza hobetuta dago. Lehenagoko, gure garaiko behorrek ez dauka zerikusirik. Lehenago 300-400 kilokoak ziren eta orain 600-700 kilokoak dauzkate. Mendian daudenak ere, 450 kilotik gorakoak gehienak. Negu guztia mendian egiteko, nahiko handiak jartzen ari dira. Handiak laguntasun gehixeago behar du”. Dena den, onartzen du, gure mendietarako zenbaitetan handiegia gertatzen dela gaur egungo Euskal Herriko Mendiko Zaldia.

Naturak ere gero eta zailtasun gehiago jartzen omen ditu, otsoak eta putreak tarteko. “Araban badugu, Gipuzkoan eta Bizkaian ez duzuen arazo bat: otsoa. Ganaduzaleek eta otsoek ezin dute elkarrekin bizi, inola ere. Teknikoek baietz esaten dute. Orain mila urtetik honakoak, otsoaren aurka ibili dira”.

Putreak ere etsai izaten dituzte zaldiek askotan, batez ere kumea egiten duten garaian. Dena den, “putreak ez dauka kulparik, guk egin ditugu txarrak. Putreak hor zeuden eta ez zuten aberea bizirik erasotzen. Orain odolera joaten dira putreak. Behi

batean, zaldi txuletak eramanez nituen, eta lagunak behiarena zelakoan gelditu ziren”.

Haragiaren kalitatean pentsuak du garrantzia Aizpeoleak esan digunez. “Komerzializatzeko ondo prestatu beharra dago. 3 eta 5 hilabete bitartean, ikuilu barrura sartzen ditugu muxalak eta poliki-poliki pentsua ematen hasten gara. Gero pentsua, belar pixka bat eta lastoa ematen diegu. Gertatzen dena da, menditik zuzenean zaldi bat hartzen baduzu, horrek ez daukala balorerik. Ondo gizendu behar da”.

Garraio arazoa

Dena den, zaldi-haragia merkaturatzen dutenek, zailtasun gehigarri bat ere badute. “Daukagun arazo handiena da, Bruselak jarri duen garraio legea. Hemendik Italia, moxal bakoitzeko, 30.000-35.000 pezeta kostatzen da garraioa. Bi pisutako kamioiak prestatuta daude eramateko, txahalak eta behiak eramanez daitez-



bat edo ardi bat ume egiten ikusten badute, gainean izaten dira. Baina ez putreak txarrak direlako, teknikoek egin dituzte txarrak, jaten emateagatik. Nik uste dut, mendian kopuru bat behar dela baina jana jarritz gero, gehiago etorriko dira. Nik uste dut oso gaizki egin dela. Gutxi zegoe-la eta gehitzea komeniko zen, baina orain ikasi dute, bizirik dagoena akabatzen. Ume egiteko garaian, urtero, mordo bat hiltzen dira”.

Ondorio batera iritsi da Aizpeolea: “mendian kale umeak agintzen hasi dira eta mendia mendian bizi denak agindu edo zuzendu behar du”.

Mendia garbi mantentzea

Haragitarako zaldi edo behor gutxi hazten da Goierrin eta Euskal Herrian. Dena den, inguruko mendietan, behor ugari ikusten da. Aralar aldean adibidez, 740 behor eta zaldi ibiltzen dira. Mendia garbi mantentzea izaten da funtzio nagusia, Jabier Aizpeoleak aurreratu digunez. “Behorrak duen funtzio nagusia, mendia garbi edukitzea da. Lehen lana egiten zen behorrek baina gaur egun lan gutxi egiten da. Daukan inportantzia handiena niretzat, mendia garbi edukitzea da. Izan ere, beste ganadu batzuk mendian gelditzen ez direnean, beti gelditzen da garbitzea komeni zaion zaborra, eta neguan gelditzen denak egiten du lan hori. Behorrak alegia”.

Aizpeolearentzat gainera, gero eta lan gehiago dago mendia garbi edukitzeko. “Egunetik egunera sasi gehiago dago, eta hori, egunetik egunera ganadu gutxiago gelditzen delako da. Inon diren lege guztiak sartzen ari dira. Ez dakit mendiaz zenbat entendiitzen duten hori esaten dutenak. Itxura denez asko jakingo dute baina mendia garbi edukitzeko, ganadua behar da. Urtean, garai batean, belar goxo hura erraz jaten dute etortzen diren denek, baina belar zahar batzuk gelditzen dira eta ganadua egoten ez bada... Eguraldi txarra dagoenean, elurrarekin edo izotzarekin, beti belar klase bat edo sasiak, heltzen joaten dira. Elurrarekin adibidez, ote eta sasi dena zapaltzen dute, moztu ere bai, bestela gora joaten da. Baina elurra dagoenean, ganadurik ez badago, zona hori berriro zikinduta geldituko da. Mendiaren oreka mantentzeko, ganadu mota guztiak behar dira”.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net
nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

Pottoka zaldi arraza sustatzeko zaldi-hezitegia jarri du Otzaurten Pottokazaleen elkarteak

Euskal arrazako pottoka, arriskuan dauden animalietako bat da. Ildo horretatik, Mirari Inza Gipuzkoako Pottokazaleen elkartearen koordinatzaileak adierazi duenez, “arriskuan izateak bere berreskurapenerako laguntzak izatea bideratu du, eta horri esker, animalia kopurua berreskuratzen lagundu du”. Inzak laburbildu digunez, galtzeko arriskuan dagoen arraza denez pottoka, 2002-2006ra Europatik dirulaguntzak jaso zuen. Laguntza horien bitartez, kopurua pixka bat handitzen joan zen. Horrekin batera, arraza eta odola berreskuratzea lortu zuen. Epe horretan nahiko ondo saltzen ziren pottokak. Bazkide berriak egin ziren eta behokak, emeak, nahiko ondo saltzen ziren. Orain 2007-2013 laguntza plangintzaren barruan gaude. Euskal Herriko Mendiko zaldia, gehiago harategirako bideratuta dagoena, dirulaguntzak jasotzen hasi zen eta pottokari zegokion laguntza gutxitu egin zen. Frenoa nabaritu zen”.

Irteera berriak

Lan asko egiten ari dira Gipuzkoako Pottokazaleen elkarteak, arraza bera



Gipuzkoako Pottokazaleen elkarteak, 75 bazkide ditu. Pottoka arrazaren barruan kalifikatutako 3 urtetik gorako, 520 buru daude.

hobetu eta salmentari begira pottokari beste etekin edo irteera bat atera nahian. “Bigarren etapa honetan ikusi zen, pottoka, mendiak eta lursailak garbitzeko ona erakutsia zuela, baina beste irteera bat ere eman behar zitzaiola pottokari, egunen batean laguntzak bukatzen badira, arriskua ikusten delako egingalana galdu egingo dela”, azpimarratu du Pottokazaleen elkartearen koordinatzaileak. Horrela sortu zen Pottokagune proiektua.

Hiru erabilera, hiru sailkapen

Pottoka arrei zuzendutako proiektua da bera. “Ikusten ari da, behokak, pottoka emeak, irteera badutela, baina ikusten zen, arrak galtzen ari ginel”, dio Inzak.

Beraz, hiru zati ditu erreferentzia zentroa izan nahi duen Otzaurten kokatua dagoen Pottokagune proiektuak. Hiru urteetan zehar, aukeraketa egin eta hiru sailkapen egingo dira pottoka arren artean. Batetik, bere izaeragatik eta domarako joera-

gatik, ekitaziora eta umeengana zuzenduko direnak; bestetik, doma horretan lan gehiago behar dutenak, ‘mendiko lorazainak’ deitutakoak, sailak garbitzea bideratuko ditugu. Eta hirugarrenik, politenak eta zoragarrienak, hazitarako. Lehenengo bi ataletarako, zikiratuak izango lirateke, arazorik ez izateko”.

Mila Inzak azpimarratu nahi izan duenez, aisialdiko ekitaziorako aukera ona pottoka. “Erabilera horretarako ezaugarri ezin hobeak ditu pottokak. Bere garaieragatik eta izaeragatik umeentzako ponie bezala oso aproposa da eta gure ustez askotan pertsona helduentzako ere balio lezake. Mugimendi harmoniko eta orekatuko zaldia da, dudarik gabe pertsonak gainean ibiltzeko egokia”.

Hezi

Pottokak hezteko hezitzaileak ditu Pottokazaleen elkarteak. Emaizta onak lortu dituzte. “Duela urte batzuk, jendea zaldi gainean ibiltzen zen, eta argazkietakoek pottoka itxura dute. Baina

behin haragitarako nahasketak izan zirenean, pottoka gorputzik gabe gelditu zen eta familiako baztertua izan zen. Pottoka mendira bidali zen. Orain arte, uste izan da, pottoka sasi-zaldia izan dela, ezin zaiola eskurik jarri... basati hutsa dela. Poliki-poliki ari gara erakusten ez dela horrela eta elkartean lan handia egin da horren alde. Orain dela 6 urte, animalia bat kalifikatzeko, ia-ia rodeo bat egin behar zenuen eta orain leku batera, helduta sokatuta eta eskutik ekartzen da. Horrek erakusten du, hezita, izugarrizko animalia dela. Hipikatan utzi diren pottokin oso gustura daude. Umeek ibiltzen dituzte, edozein animalia bezala. Adibidez, bazkide baten seme-alabak, 3 eta 4 urterekin, pottoka gainean jaisten dira ikastolara”, azaldu du Inzak.

Krisialdia

Dena den, merkaturatzeko zorian zeudenean, kanpoko arazo batekin egin du proiektuak: ekonomia krisia.

Otzaurten

Goierrri aukeratu du Pottokazale elkarteak, pottoka arrazako zaldiak sustatzeko proiektuaren kokalekutzat. Otzaurten dute zaldi-hezitegia. Iaz esperientzia txarra izan zuten, aurtan ez daude pottokak bertan. Udaberri aldera berriz ere han izango dira. Udaberriarako 4 pottoka prest egongo dira ibilaldiak eta ekintzak egiteko Aizkorri-Aratz Parke Naturalean.



Pottoka

“Proiektu hau hasierako hiru urteetan defizitarioa da, ezin duzulako ezer ere saldu. Ez daukazu diru sarrerarik. Beraz, laguntzekiko menpekotasun handia daukagu eta badakigu gaur egun laguntzen kontua nola dagoen. Salmentara heltzen orain ari ginen baina merkaturako oso gaizki dago, bai pottokentzat, bai arabiarrentzat, denentzat. Standbay momentuan gaude la esan liteke. Salmentarako irteerarik ez dagoen bitartean, ‘lorazain’ bezala eskaintzen ari gara, eskaerak datozelako eta lan ona egiten dutelako. Proiektua ez dugu bukatutzat eman nahi potentziala ikusten zaiolako, irteera bat eman nahi zaiolako eta ez galtze”.

Krisialdi garai honetan dena den, lursailak garbitzeko eskariak jasotzen ari dira. “Pottokak duen sasi-zaldi famarekin puskatu nahi dugu. Beste erabilera batzuk badi-tuela aldarrikatu nahi dugu. Mendian oso gogorra da, ‘lorazain’ ona da, ez dago zalantzarik horretan. Gero eta animalia gutxiago dago mendietan eta geroz eta zikinagoak daude. Alde horretatik, pottokak erakutsi du bere balioa, pottoka dagoen inguruetan, lursailak garbi daude. Jaizkibel mendia da horren adibidea. Jaizkibelen hegoaldeko magala, pobreena da, larrearik ez dago, bazkide baten behorak dabilta bertan eta garbi mantentzen dute”.

Euskal Herriko poni arraza da pottoka. Gipuzkoako Pottokazaleen elkartearen koordinatzailea den Mirari Inza legazpiarrek azaldu dizkigu pottoken ezaugarriak “Gure inguruneari oso ondo egokitua eta aldi berean ingurune berezi honetan zaildu eta moldeatua. Historian zehar erabilerak asko izan ditu pottokak. Ondo osatutako animalia da, neurri ertain eta proportzionatuak ditu eta gorputz gihartsua eta sendoa. Izaeraz berriz, azkarrak, leialak eta oso erresistenteak dira. Ezaugarri guzti hauegatik, eginkizun askotarako erabilia izan da: gainean ibiltzeko, ehizarako eta gerretarako, gurdietatik tiratu eta nekazaritza lanetarako, meatzetan bagoietatik tiratzeko, aleak jaulkitzeko, haragitarako (burgete zaldiaekin gurutzatuta), kanpo esportaziotarako (Indiako armadarentzat), eta azken aldian larreak eta mendiak garbi mantentzeko erabiltzeaz gain, zenbait ekitazio jardueretan ere ikus daiteke”.

Hala ere, gaur egun arriskuan dagoen arraza da Inzak esan duenez, “Egungo modernitateak, nekazal lanen mekanizazioak, mendi eta lurren jabe go pribatuak eta hauen erabilera produktiboak, eta arraza bera eta bere produktuetarako merkatu falta, beste ezertarako erabiltzen ez diren mendi eta bazterretara alboratu dute”.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
 ODONTOLOGOA
 KOL. Zka. 649 RPS: 223/07




TEL./FAX: 943 88 92 87
 SAN INAZIO KALEA, 2
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


Pottoka
 K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04


MUJIKA
 LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
 Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



7 auto-elektriko jarriko dira herritarren esku

Sarecar: auto-elektrikoaren alokairu sistema sortu da Ataunen

Ataungo San Martin jaiak pasatu ondoren, auto-elektrikoak alokatzeko sistema jartzekotan dira Ataunen. San Martin auzoan, 5 auto-elektriko egongo dira Intxaurrondoko aparkalekuan, eta bi San Gregorioko aparkalekuan. Azken hiru urtean garatzen aritu diren proiektu honen nondik norakoak kontatu dizkigu Bittor Oroz alkateak.

Inguruan ez omen da horrelako proiekturik. Ataundarrak aitzindariak zarete auto-elektrokoen alokairuan.

Hala da bai. Lehenengo herria, Euskal Autonomia Erkidego mailan bai, Estatu mailan ere lehenengotarikoa, European beste antzeko eredu bat, Norvegiako herri batean bilatu genuen. Proiektu pilotoa da. Oso xumea da. Ataunen da. Pentsatzen dut herri handiago batean beste aukera batzuk sortuko lirakeela, jende gehiago dagoelako. Orain badatorrela dirudi.

Nondik nora sortu da auto-elektrokoen proiektu hau?

Proiektu hau, orain dela hiru bat bururatu zitzaigun. Agenda 21 plangintza ezberdinak egin ziren herrietan eta plangintza haietan helburu batzuk zehazten ziren. Guri iruditzen zitzaigun, helburuak oso orokorrak zirela eta helburu horiek zehazteko ahallegina egin genuen, epe muga batekin, neurtzeko moduko zer-bait izan zedila. www.atauningurumena.net web orri bat sortu genuen eta gure asmoa zen, herritarrei aukera ematea, fiskalizazio lana egiteko.

Proiektuak zehazten hasi ginen eta horietako bat, mugikortasun iraunkorra zen. Eta horren barruan, proposamen bat izan zen, auto-elektrokoen gaia aztertzea. Hortik pentsatu genuen, autoak alokatzeko sistema bat jartzea, eta horiek elektrokoak izatea.

Zein helburu ditu proiektu honek?

Batik bat, hiru helburu zituen proiektua izatea nahi genuen. Alde batetik, mugikortasun iraunkorraren barruan, auto-elektroko "baliozkoa" izan zitekeela erakustea. Kakotx artean diot, hau proiektu pilotoa delako. Ez dago beste erreferentziarik datuak hartu ahal izateko. Auto-elektroko posible da eskualdean mugitzen den jendearentzat edo Donostiara doanarentzat? Aztertzen hasi eta ikusi genuen posible zela, azken finean, duela pare bat urte, 120-130 kilometroko autonomia baitzuen prototipoak. Horrek gure beharrak betetzeko aukera ematen digu. Eskualdeko mugikortasun azterketak ere horrela diolako: eskualdean kotxea hartzen duen ehuneko laurogeita luze batek, eskualdearen barruan bukatzen duela ibilaldia.

Eta posible da, sistema guztiz iraunkorra izatea? Auto-elektroko bat iraunkorra da, berak kargatzen duen elektrizitatea, zein bitartekorekin sortu denaren arabera. Zentral termikoan sortu den elektro bat baldin bat sortu duena, ez da hain iraunkorra, CO₂-a isuri baita sortzeko garaian. Erakutsi nahi dugu, autoak sortzen duen energia indarrarekin, kasu honetan, eguzki energiarekin, sistema guztia elikatu daitekeela. Erabiltzen denaren arabera, zati handi bat bete dezake.

Iberdrola proiektuan sartu zenean, beste aurrerapen bat izan zen. Iberdrolari interesgarria iruditu zitzaion, beste proiektuekiko aurreratuta ikusten zuelako Ataungo proiektua. Iberdrolak Mix energetikoa dauka bere energia produkzioan.

Zazpi auto elektriko

Zenbat auto-elektroko ekarriko dituzue?

Hasieran 15 jartzea aurreikusten genuen baina gutxiago jarriko ditugu. Arrazoia ondokoa da: interneten sartzen zara eta iruditzen zaizu auto-elektrokoen marka pilo bat daudela. Deika hasten zara eta konturatzen zara autorik ez dagoela. Momentu honetan, marka bakarra dago merkatuan. Guk erosi ditugun autoak Think City markakoak dira. Momentu honetan monopolio egoera batean daude. Marka gehiago nahi genituen. Momentuan 7rekin hasi gara, baina denborak esango digu gehiago beharko ote ditugun. Eta ea marka gehiago ateratzen direnean, merketzen diren. Autoak garestiak dira, hein handi batean, marka bakarra dagoelako.

Kotxeak oso ondo ibiltzen dira. Gehienez 120 km/orduko abiadura har dezake. Ataungo aldapak ondo igotzen ditu.

Bere energia guztitik, %17a, bitarteko iraunkorrez sortzen du, batez ere eolikoak erabiliz. Ataungo proiektua hornituko duen energia Mix energetiko horretan %17 horren barruan egongo litzateke.

Proiektuak ere bazuen hirugarren helburu bat. Gure mentalitatea aldatzeko, bakoitzak geure kotxea eduki beharrean, orduka alokatuz, edo kotxea batek baino gehiagok erabiliz... posible da aldaketa hori egitea kontsumoko gizarte honen barruan egonda? Autoa estatus emale den egoera honetan posible da aldaketa hori lortzea?

Ataun herri sakabanatua da, auto asko al dago? Horrek bultzatu al zaituzte?

Bai, 18 urterekin denok gida-baimena eta autoa izaten dugu. Kulturala da. Askotan ez da planteatu ere egiten garraio publiko erabiltzea, kulturalki oso sartuta dagoelako, 18 urterekin gida-baimena eta autoa behar ditugula. Posible izango al da hori aldatzea? Orain ikusiko dugu.

Proiektua lantzen aritu zaretenean, zein izan da zailtasunik handiena?

Zailtasun gutxi izan dugu proiektua garatzerakoan, gustatu egin delako. Erakunde guztiei asko gustatu izan zaien proiektua izan da. Nik uste dut, martxan jartzerakoan izango ditugula zailtasunak, guk jarri izan dugun proiekturik konplikatuena izango da. Zergatik? Azkenean, jendearekin interakzio handia dagoen proiektua delako.

Zerbitzu guztiz berria saldu beharra dago eta gainera, filosofia aldaketa bultzatzen duena. Bigarren autoa saldu, hau erabili... Bere eraikuntzan erraza izan den proiektua izan da, babes handia izan dugulako eta erakundeek parte hartu nahi izan dutelako, gero martxan jarrita, konplikazioa izango da,

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea (MU)

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurketa, kalkulua, ikasketa teknikak

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde, 7 - BEASAIN
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA





Alokatzeko sistema

Alokatze-sistema zein izango da?

Antzekotasun handia du Donostiako bizikleta alokairu sistemarekin. Auto-elektroko alokatu nahi duenak, Udaletxean eskuratu beharko du txartela. Txartelagatik, fidantza moduko zerbaite eskatuko dugu. Txartel hori erabiliz irekiko dugu autoa. Internet bidez, telefonoz eta aparkalekuan bertan izango den makinatxoan, izena eman behar da, autoa halako egunetan halako ordutan behar duela adieraziz. Aurretik lortutako txartelari baimena emango zaio. Orduka kobratuko da. Kilometroka ere bai zertxobait. Oraindik prezioak erabat zehaztu gabe ditugu, baina ez da diru kopuru handia izango, erabiltzea nahi baitugu. Argi daukagu, ez dela dirua irabazteko proiektu bat. Egia da, proiektu honi oreka finantziarioa bilatu behar zaiola, etorkizunari begira, beste leku batzuetan ere jarri daitezten.

Ordutegirik egongo al da alokatzeko?

24 ordutan alokatu ahal izango da. Ahalik eta denbora gehienean, ahalik eta jende gehienak erabiltzea nahi dugu. Batek baino gehiagok erabiltzen badu, bonifikazioa izango da. Adibidez, CAFera lanera joateko lau lagun elkartu eta autoa alokatzen badute. Ideala litzateke.

Pentsa daiteke, jende askok pentsatuko duela autoa gidatzen ari dela bateriarik gabe geldituz gero zer gerta ote litekeen.

Kasuistika asko daude. Sistema bat antolatzen ari gara. Autoak berak abisatzen du zenbat kilometrorako bateria gelditzen zaion. Informazio zuzena bidaliko du autoak. Berez, proiektuak, teknologikoki nahikoa aurrerabide ematen ditu, baina gehiago kezkatzen nau arlo sozialak.

proiektuaren sentsibilizazioa egitea, zein proiektu polita den esatetik erabiltzera eta ordaintzera pasatu behar gara.

Herritarren artean azterketarik egin al duzue proiektuak zein jarrera izan dezakeen ikusteko?

Egin dugu bai, eta hasiera batean, jendeak iritzi ona dauka. Baina gauza bat da iritzi ona edukitzea eta beste gauza bat da, erabiltzea. Jende askok esan digu, ziurtatzen badidazue halako ordutan autoa izango duela edo ia ziurtatzen badidazue... Jendeak bigarren kotxearekin asko jokatzen du. Hemen familia gehienek bi auto dauzkate, edo gehiago. Bigarren auto hori kentzeko aukera eskainiko du. Baina ziurtasun hori edukitzeko, auto kopuru handia behar da eta momentuz ez da oso kopuru handia. Gainera, hain gauza berria denez... Guk egin dugun kalkularen arabera, autoa edukitzea bakarrik 4.000 euro kostatzen da. Segurua, zerga... Azterketak direla, gasolina dela...

Proban eduki genituen auto-elektrokoak, bi egunez, hiru orduz. Eta autoak ez ziren gelditu. Herritarrak berak, 5-10 minutuko buelta bat ematen zuen eta autoak ez ziren gelditu ere egin. Jendeak kuriositatea badauka. Eta jendea harritu egiten zen, kotxe-kotxea zela ikusten zuten.

Gero beste gauza bat da, alokairu sistema ere oso berezia izango baita. Berezia baino gehiago, txartel baten bidez ireki ahal izango autoa.

Sentsibilizazio kanpainak egingo al dituzue?

Sentsibilizazio lana handia egingo du proiektuak. Eskolan sentsibilizazio kanpaina eginga dute. Umeek marrazkiak egin zituzten. Kotxe bat, Ataungo umeek egindako marrazkiekin apaindua dago. Etorkizuneko ataundarrak dira eta haurrak.

Jendeak badauka kezka bat. Jakina, kezka orokor hori badauka, baina gero ikusi egin nahi dugu kezka hori nola konkretatzen den.

Orokorrean, aldaketa bat etorri beharra dago. Alde batetik, krisi ekonomikoa dagoelako eta bestetik, nola ez, adituek esaten dutelako, petrolioak 40 urterako dagoela. Energiari balio bat ematen joan beharrean gaude. Guk, adibidez, energia oso merkea daukagu. Energia askotan, gaizki erabiltzen dugu eta konkretatzen joan beharrean gaude, energia hori sortzeak, askotan, hain positiboak ez diren ondorioak dituela. Badauzka beste helburu orokorrak, eta gure aletxo ere jarri nahi izan dugu.

Erakustaldi efektu bezala funtzionatzea nahi dugu beste herri batzuekiko. Badirudi lortu dugula, herri askok deitu baitigute interesatuta. Parke Teknologikoez ere bai. Alde horretatik, bere funtzioa beteko duela uste dugu.

Zuek aurreratu egin zarete, beraz?

Badatorren gauza bat da. Elektrokia edo hidrogenoa, baina badator aldaketa. Auto-elektrokoak boom-a 2012an izango du. 67 marka egongo dira merkatuan. Autoaren autonomia asko ari dira luzatzen. 200koa ere ari dira lortzen. Autonomian asko ari dira handitzen, kotxe motak ere bai... ahalegin handia egiten ari dira auto egileak. 2012an kaleetan auto-elektrokoak ikusiko ditugu. Beraz, kargadoreak ere baliozkoak izango dira dena erregulatu arte. Gaur egun modan dago auto-elektrokoak hitz egitea baina orain dela hiru urte, aurpegi arraroarekin begiratzen ziguten.

Herri batzuetan hasi dira kargalekuak jartzten.

Beasainen eta Ordizian bi kargadore gune jarriko dituzte, bi aparkalekutan. Donostian ere jartzekoak dira, Eibarren Corte Ingeleseko aparkalekuan ere ba omen daude... Jaurilaritzak ere egin omen du hitzarmen bat 2012rako 200 elektro-linea jartzeko... Zenbat eta herri gehiagok bat egin proiektu honekin, proiektu osoagoa izango da.

Idea bat egiteko, telefono mugikorrek bezala kargatzen dira autoak. Zenbat denbora behar du autoak kargatzeko?



Sarecar

Sarecar izenez bataiatu dute auto-elektrikoen alokairu sistema. Ataundik, inguruko beste herrietara zabaldu nahi dute, proiektua bera erabilgarriagoa izan dadin. Sarecarren arabera, auto-elektrikoa erabiltzeak dituen abantailak bat baino gehiago dira:

- **Kontsumoa:** Auto elektriko batek erreuntza auto batek baino %90 gutxiago kontsumitzen du; izan ere, motor elektrikoek

eraginkortasun handia dute funtzionamendu erregimen guztietan. Gainera, horrelako auto baten gastu elektrikoa, 10kWh eta 20 kWh artekoa da, 100 km-ko ibilbidean.

- **Isurpenik gabeko garraioa:** 90-120 CV-ko potentzia duen ibilgailu batek adibidez, errepidean eta herri barruan urtean 15.000 km egiten dituenak, 2,813 tona CO₂ isurtzen ditu ingurumenara urtean.

Kargatzeko eredu ezberdinak daude. Kotxe honek, bateria oso-oso betetzeko, 8 orduko kargaldia behar du. Asko da, baina ari dira karga azkarreko sistemak garatzen, 15 minutuko kargaldi azkarra. Eta bateria aldaketa ere badago. Hustutako bateriaren orde, betetakoa jartzea. Sistema horietan asko ari dira aurreratzen.

Ataundik kanpoko herritarrek erabil al dezakete sistema hau?

Ez da mugatua izango, azken finean denon diruarekin egindako zerbait delako.

Zein kostu izango du proiektuak?

Proiektuaren kostearen % 100 finantzatuta dago. Kutxak 200.000 euro eman ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak Diputazioak 400.000 euro eta Ihebek 100.000 euro.

Asko dela? Kritikaren bat entzun izan da, diru asko delako. Diru asko da, ez dago ukatzerik. Baina 700.000 euro ez dira Ataunen gastatzen. Zati handiena, alokairuko sistema (Sarecar) garatzeko, karga sistema garatzeko... izan da. Besteentzat geldituko diren proiektu asko eta asko egin dira diru horrekin.

EZ AHAZTU ZURE ENTZUMENAREN OSASUNA!

BIDEOTOSKOPIO KANPAINA

GAES-en BIDEOTOSKOPIO bitartez egindako entzumenaren azterketa osoa egingo dizugu DOAN.

Bideotoskopioa GAESen egongo da datozen 15 egunetan.

GAES
Entzumen Zentroak

GAES-en BIDEOTOSKOPIO bitartez egindako entzumenaren azterketa osoa egingo dizugu DOAN.

Bideotoskopioa GAESen egongo da datozen 15 egunetan.

GAES
Entzumen Zentroak

- ✓ Entzumen-gaitasunaren azterketa egingo dizugu.
- ✓ Argizaririk pilatuta duzun begiratuko dizugu.
- ✓ Belarriaren barrualdea erakutsiko dizugu pantailan.

Nafarroa Etorb., 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN



Zugaitz Ayuso:

“Mendi bizikleta oinarri-oinarritik indartu behar da, gaztetxoekin egin behar da lana”

Urte batzuk badira Zugaitz Ayusok txirrindularitza utzi zuela. Dena den, gertu-gertutik jarraitzen du oraindik ere txirrindularitza, batetik, txirrindu denda daukalako; bestetik, Euskadiko Txirrindularitza Federazioan, mendi bizikletaren ardura duelako eta azkenik, Loinatz Mendi Bizikleta taldearen zuzendaritza ere badaramalako. Mendi bizikletako Euskadiko selekzioaren hautatzailea ere bada. Mendi bizikleta indartzeko beharra ikusten du Ayusok eta gaztetxoekin lan egitekotan da itsasondoa. Bi urte daramatza Federazioan eta beste bi urte gelditzen zaizkio egindako lanaren emaitzak ikusten hasteko.

Txirindularitzaren barruan mendi bizikleta, bigarren mailako disziplina al da?

Bigarren mailakoa ez da inondik inora. Umeak kalean ikusi eta mendiko bizikletarekin ibiltzen dira. Baina txirindularitza errepidera bideratuta dago eta garrantzia gehiago ematen zaio errepideari, azken batean, diru gehiago eta bitarteko gehiago dagoelako. Horrekin batera, talde gehiago daude, aukera gehiago dago. Mendi bizikletan oso talde gutxi gaude. Hemen, Euskal Autonomia Erkidegoan, talde egiturarekin, bi talde egongo dira, Saltoki eta Mendiz Mendi. Ez dago talderik maila guztiak dituenik. Laguntaldeak badaude publizitatearekin korritzen dutenak baina ez dute talde baten egitura. Guk, iaz osatu genuen Loinatz Mendiko Bizikletako taldea. Aurten, talde indartsuagoa egin nahi dugu eta babesleak lortuz gero, maila guztietako txirindulariak eduki nahi genituzke, infantiletatik hasita. Loinazen klubean gaude baina babesle bila gabiltza, batekin eta bestearekin egonez. Borrokan.

Mendi bizikleta indartzeko garrantzitsua izango da, gaztetatik taldean sartzea, ezta?

Bai! Errepidean ikusten duzu, infantilentzat eta alebinentzat karrera asko daudela. Taldeak ere badaude. Baina mendi bizikletan, adibidez, Gipuzkoan ez dago batere. Gure asmoa da, babesleak

lortu eta taldea sortzea, eta baita karrerak sortzea ere. Aurten, infantilek korritu ditzakete mendi bizikletako karrerak. Orain arte ezin zen, baina lortu dugu Diputazioarekin lasterketak egin ahal izatea. Ez zuten ondo ikusten hain adin txikikoentzako mendi bizikletako karrerak egotea. Orain lortu dugu hori antolatzea. Orain karrerak antolatzeko taldeak edo jendea aurkitu behar da. Formula da, oinarriarekin, basearekin lan egitea jendea mendi bizikletara erakartzeko. Hortik, normalean behintzat, norbait iritsiko da gora.

Taldeak gutxi eta mendi bizikletako karrerak ere gutxi daude.

Bai, gutxi. Iaz, Zegaman eta Arriaranen karrerak sortu genituelako, baina bestela, Gipuzkoan ez zegoen karrerarik. Orain bi urte Tolosan bakarrik egon zen. Karrerak, Euskal Herrian, 50 bat egongo dira. Euskadiko Federazioak 20 bat karrera antolatzen ditu eta Nafarroakoak, 30 bat. Bi federazioak aparte ari dira baina elkarlanean aritzen gara, egutegia koordinatzeko. Alde horretatik kolaborazioa badago. Eskutik helduta goaz, bestela gaizki ibiliko ginatke. Nafarrek egitura ona daukate. Iturmotz taldea badago, eta izugarritzko lana egiten dute.

Alebinak eta infantilak ere badituzte taldean. Eredugarria den taldea da.

Infantilak gerturatzen ari al dira taldera?

Oraindik ez. Oraindik ez daukagu garbi babeslearen kontua eta ez dugu gehiegi zabaldu. Arduradun batzuekin hitz eginda nago eskoletara informazioa zabaltzeko eta gerturatu nahi duenak, ateak irekita dauzka. Helburua, gaztetxoei erakustea da. Niri erakutsi zidatena, nik gazteei erakustea. Etorritakoen erdiak beharbada utzi egingo dute kadeteetan baina 5 edo 6k jarraitzen badute, helburua hori da.

Gaur egun Euskal Herri mailan ez da oso ona mendi bizikletan. Kritikoa izan behar da. Oso maila baxua dago momentuan. Orain dela 10 urtetik hona, gauzak ez dira hain ondo egin. Ardura zeukatenek, lasterketa oso amerikarrak egin dituzte: halako kamioia jarri, halako megafonia... baina ez dira kezkatu harrobia dela inportanteena. Momentu honetan, dagoen dirua, gazteekin gastatu behar da. Azken batean, goian daudenak

badaukate autonomo izateko bidea baina gaztetxoak eraman egin behar dituzu. Bitartekorik ez badago, ezin dira karreretara eraman eta baserik ez dago. Talde bat baldin badago gaztetxoak karreretara eramango dituen, lan bat badago. Kate bat da. Hasieran kantitatea da garrantzitsua. Zenbat eta ume

Helburua, gaztetxoei erakustea da. Niri erakutsi zidatena, nik gazteei erakustea.

gehiago, konpetentzia gehiago eta kalitate hobea.

Inguruan zein maila dago?

Espanian maila ona dago momentu honetan, bai gizonezkoetan eta emakumezkoetan. Aurten gure lehenengo elitea, 16. sartu da. Ez da emaitza ona. Lehen, podiumetik gertu ibiltzen ginen. Lehenengo hamarretan beti. Euskadiko selekzioak lehen errespetua zegoen, beldur bat. Orain berriz, laguntalde bezala hartzen gaituzte. Balear irlak, Andaluzia, Madrid, valentzia... maila oso ona dago. Gazteei erakutsi eta eliteari agur esan behar zaie. Horiek desiatzen daude baina ikusten dute, ez dagoela mailarik eta hortxe dabilta gozatzen. Beharko segi! 35-40 urteko jendea korritzen dabil. Normalean mendiko bizikleta, 28 urterekin utzi egiten da, gazteei paso uzteko. Baina pasoa emateko ere maila pixka bat egon behar da.

Gazteek erreferentzia askorik ez daukate. Iñaki Lejarreta hor dabil..

Bestela ez dago inor. Euskal Herrian bera bakarrik dabil puntan. Pentsa, nik 2001ean korritu nuen Euskadiko Opena. Urte hartan, irabazi egin nuen. Nirekin korritu zuen jende hori dabil orain Euskadiko Openean. Garai hartan, 10. postuan ibiltzen

GRAFICAS EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

ibaiondo
altzariak

disek

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxes: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



zen nire adineko tipo bat, orain karrerak irabazten ari dira. Horrek esan nahi du, ez duela batere eboluzionatu. Hobetu dute baina azkenean asto karrerak bihurtu dira. Lortu behar dugu gazteekin maila hori igotzea. Orain 23 urtez azpiko txirrindulari bat, elitekoekin batera korritzera joaten da eta 15. egingo du. Gure garaian, 23 urtez azpiko batek karrera irabaziko zuen. Konpetentzia gehiago zegoen. Profesional gehiagok ere parte hartzen zuen. Orain gehiago bihurtu da, lagun-koadrila arteko zerbait eta hori mendiko bizikletarentzat minbizia da. Gazteekin egin behar da lana eta poliki-poliki joango da maila igotzen. Gazte oso onak daude, baina motibazio faltagatik utzi egiten dute. Gazteak motibatzen badira, irteerak antolatu kanpora... orduan maila igotzen da.

Lan oso ona egin zuen garai batean Ismael Lejarretak, Iñaki Lejarretaren aitak. Baina oso kritikatu izan zen, beti Iñakiren ondoan zegoelako eta gauzak Iñakirengatik egiten zituela esaten zelako... Baina hori ez zen horrela. Iñaki oso txirrindulari ona zen, baina besteetaz ere arduratzen zen. Frantziara, Espainiako Kopara... irteerak egiten ziren.

Euskadiko Federazioan zabilta. Federazioak beharrik ikusten al du?

Bai, badu borondatea. Azken batean, ardura daukana ni naiz eta erabakiak nik hartzen ditut, Jose Luis Arrieta eta Iñigo Chaurrearen babesean. Konfiantza guztia daukate nigan eta ados daude nik pentsatzen dudanarekin.

Adibidez, konzentrazioa egin dut Seguran, kadeteak eta juniorrak eraman ditut. Afizionaturik eta eliterik ez dut eraman, iruditzen zaidalako ikasi beharrekoa ikasita daukatela. Gaztetxoei erakutsi behar zaie. Gazteek dena hartzeko eta ikas-teko daude. Gu txirrindulariak ginenean, Holanda eta Belgika aldera joaten ginen. Irakaslea izaten genuen teknika erakusteko. Motibazio handiarekin joaten ginen. 20-25 urterekin joaten denak, uste du dena dakiela eta ez du motibaziorik. Denborarik ez galtzeko, gazteekin bakarrik kontzentrazioak egitea erabaki dugu. Datorren urterako, kanpora irteerak egiteko asmoa daukagu, Frantzia aldera adibidez. Beraiek ere sentitu daitezela Euskadiko Selektzioaren barruan gustura eta harro.

Txapelketetan ez dira ibiliko haurrak baina, haur gehienek, mendiko bizikleta daukate, ez errepidekoa.

Gazteenak, gehienak, mendiko bizikletarekin ibiltzen dira herrian. Hori oso ona da horrelako talde batentzat. Zein mutikok ez dauka mendiko bizikleta bat? Errepidekoa daukana,

karreretan dabilena da. Beraz, hasteko, erraztasun bat da mutiko guztiek mendiko bizikleta edukitzea. Nik uste dut momentu honetan mendiko bizikletak izugarrizko indarra daukala, baina ez dela aprobetxatu indar hori. Izugarrizko oinarria dago. Ikusi besterik ez dago herrian zenbat mutiko ibiltzen diren mendiko bizikletarekin. %90 beharbada. Beasainen mila mutiko baldin badaude mendiko bizikletarekin, %5 etorrita ere, mutiko asko dira eta talde bat sortzeko garrantzitsua da.

Adin horretan, lasterketetan, mendian ibiltzen al dira?

Ez. Kadeteetara iritsi arte, herrian ibilita nahikoa dute. Herrian, parkeetan nahiko bitarteko badute, ez daukate asko entrenatu beharrik. Jolastu egin behar dute. Karrerak ere hala dira. Parketxo batean, bi eskilaratxo eta askoz gehiago ez. Kadeteetan zirkuituan sartzen dituzte, errepidekoan errepidean sartzen dituzten bezala. Oraindik, hemen Gipuzkoan, ez da ezer ere egin eta aurten badaukagu asmoak karrerak egiteko.

Hasteko, erraztasun bat da mutiko guztiek mendiko bizikleta edukitzea. Nik uste dut momentu honetan mendiko bizikletak izugarrizko indarra daukala, baina ez dela aprobetxatu indar hori. Izugarrizko oinarria dago.

Lotsagarria da, nola dagoen utzita mendiko bizikleta, Gipuzkoan batez ere. Gipuzkoako federazioaren aldetik, orain arte, ez da egon halako motibaziorik, eta ez da egon pertsona bat horren kargu egingo dena. Beraz, Federaziokoak ere animatu nahi nituzke mendiko bizikleta bultzatzera.

Animatu egin beharko ditugu gaztetxoak.

Animatzen direnak, nire dendara etortzeko. Denda bezala, tar-teka, ikastarotxoak eman nahi ditut. Adibidez, igande batean, mutikoekin Oiangu aldera joan, Udaletxearekin hitz egin eta eskola-kirolean egiten den bezala, ginkanatxo bat egin... Hori dena proiektua da, azkenean, proiektu hori aurrera eramateko dirua behar dugu. Ea zerbaite ateratzen den. Momentuan itxoin egin behar da. Errepideko txirrindulari asko ateratzen dira Euskal Herrian. Sekulako txirrindulariak izan ditugu eta ditugu. Mendiko bizikletan ere berdina izan beharko luke.

Mendiko bizikleta eta ziklo krosa

Zu zeu ibilia al zara mendiko bizikletan?

Bai. Ni errepidean ibili nintzen urte pilo batean eta ziklo krosa ere korritzen nuen zerbaite, baina ez nion kaso askorik egiten. Errepidekoa utzi eta Orbearekin mendiko bizikletarekin hasi nintzen. 2001ean hasi nintzen Orbearekin eta nahiko emaitza onak lortu nituen. Dena den, bigarren urtean, motibazio faltarekin aritu nintzen, aurreko urtean karre-ra mordo bat irabazita, Euskadiko Opena, Euskadiko txapelketa, Espainiako txapelketa bigarren egin nuen... eta ikusten nuen inongo taldek zuela interesik jartzen. Desmotibatu egin nintzen. Hiru-lau karrera korritu nituen bigarren urtean eta gero ziklo-krosean bakarrik hasi nintzen. Ziklo krosean urte pilo batean aritu nintzen.

Mendiko bizikleta edo ziklo krosa duzu gustukoago?

Ziklo krosa. Baina mendiko bizikleta ere asko, errepidea baino gehiago.

Bien arteko ezberdintasuna zein da?

Oso ezberdinak dira. Ziklo krosean, normalean, 3 bat kilometroko zirkuitu batean ibiltzen da bueltaka. Normalean nahiko laua izaten da, mendiko bizikletarekin alderatuta. Oztopo artifizialen bat edo beste jartzen da, beste bat naturala... Kirol azkarragoa da, baina denbora gutxi, 50 minutu edo ordubete asko jota.

Mendiko bizikletan, 7 kilometro inguruko zirkuitua izaten da. Aldapatsuagoa izaten da eta iraupenari dagokionean, 2 ordu inguru irauten du. Azken batean, bi modalidade oso ezberdin dira. Biak lokatzetan, baina ez daukate zeri-kurisirik.

Osagarriak al dira?

Bai! Mendi bizikletan dabilzan askok, neguan, ziklo krosa egiten dute.

Eta alderantziz?

Bai, konbinatu egiten dute mendiko bizikleta eta errepidea. Ziklo kroseko txirrindulariarentzako garrantzitsua da errepidean ibiltzea, oinarri on bat egitea, eta indarra eta abiadura hartzea hanketan. Abiadura hori garrantzitsua da garaipena mugitzeko garaian ziklo krosean. Karrera motza da, baina ahalik eta azkarrena joan behar duzu. Horregatik afizionatuekin korritzen dute txirrindulari askok. Unai Yusek biak egiten ditu. Duatloiekin hasi da orain jende asko. Ziklo krosean ere, teknika egitea garrantzitsua da baina korrika ondo egitea ere bai.




ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

 www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

Al Fajr: Goierriko arabiarren elkarte

Goierrin gero eta arabiar edo musulman gehiago bizi dira. Islamak elkartzen ditu arabiarak eta herrialde ezberdinetako hainbat goierritar berri, Al Fajr elkarte biltzen dira. Aljeriarrak, marokorak, pakistandarrak, maliarrak, senegaldarrak... Goierritarroi, beraien kulturaren berri nahi digute.

Noureddinerekin eta Redounerekin egin dugu hitzordua, Ordiziako Jubilatuen tabernan, lokal egokirik ez baitute oraindik. Arazotan dabilta egoitzarekin Redouanek azaldu digunez. “Okorro kalean daukagu lokala, dena den, orain, behin-behinean beste lokal batean gaude. Horren arrazoia, Okorro kaleko lokalako bizilagunek ez dutela bertan elkarerik egoterik nahi”.

Epaitagian sartuta dago auzia eta arabiarrek lehenbailehen bertara joan nahi dute, lokala egokitzeke diru asko erabili baitute. “Gero eta jende gehiago gaude eta Okorro kaleko lokalean obra egin genuen. Denboraldi batean han izan ginen baina bizilagunek ez zuten nahi izan, beraien etxe azpian kultur elkarte bat izatea. Zergatik? Hasieran ez ziguten ezer ere esan. Gero, gehien-goak erabaki zuten ez zutela elkarerik nahi. Normala da, inork ez du bere etxean tabernarik nahi. Baina guk dirua gastatu dugu eta epaiketara dago auzia. Lokal hura handia da”, gaineratu dute. Otoitz egiteko lekua, liburategia, euskara ikasi nahi duten emakumeentzat eta haurrentzat ekintzak. “Aukera asko ematen du eta asmo ugari dugu. Adibidez, arabiarra ikasi nahi dutenentzat ikastaroak emateko aukera izango genuke. Euskaldun askok ikasi nahi du arabiarra”.

Dena den, Redounek eta Noureddinek diote, horrelako arazoak ez direla hemengo arazoak bakarrik. “Ez da hemengo kontua bakarrik. Espainian ere arazo berdina daukate. Nik uste dut jendeak ez duela hainbeste jende batera nahi. Gero eta gehiago, industrialetara bidaltzen gaituzte. Guk ez dugu zaratarik ateratzen, baina jendeak ez zuen hainbeste arabiar nahi. Jendea, Islamak, beldurra ematen dio”.

Islamaren inguruan ezjakintasun handia dagoela diote. “Hori telebistak eragin du. Mezu okerrak zabaltzen dituzte. Gainera, hemen jende gutxi ikasten eta irakurtzen du eta gehienak, telebistak esandakoarekin ibiltzen dira. Eta askotan telebistak ez du dena egia esaten. Baina epaitzeko, jakin egin behar da”.

Islama ezagutaraztea

Hain zuzen ere, lokalak berak eta elkarteak, horretan lagunduko luke Redoune eta Noureddinerekin esanetan. “Guk geure kultura ezagutzera eman nahi dugu eta baita arabiarak elkartzen gaituen

islama ere. Aljeriarrak, marokorak, pakistandarrak, maliarrak, senegaldarrak gaude elkarte baten gaitu. Hasieran aljeriarrak eta marokorak bakarrik geunden elkarte baina gero eta nazionalitate ezberdin gehiago sartzen ari dira. Gu Islamarekin bizi gara. Guretzat oso garrantzitsua da”.

Europar, islamarekin bizitzeko erraza ote den galdetu diegu. “Nola gorde islamiar eta arabiar kultura, Europar? Hemen herri libre batean gaude, nahi duzuna sinisten duzu, besteekin elkarbizitzen zaren neurrian. Konbixtu egin behar da eta ezagutzera eman behar da arabiar eta musulmanen kultura. Egia esateko, erraza da, besteekin elkarbiziteko eta beste arauak errespetatzen dituzun heinean. Hemen, euskaldunak, beraien tradizioekin bizi dira. Gu ere, geurekin bizi gara”.

Otoitz

Otoitz egitea oso garrantzitsua da islamdarrentzat. “Herrialde musulmanetan



mezkitak daude otoitz egiteko eta hemen, lokaletan egiten dugu. Dena den, pixkanaka uzten joaten da jendea. Hemen ere gero eta jende gutxiago joaten da Elizara. Bakoitza den bezalakoa da, eta inor ezin duzu behartu”.

Ostirala izaten da islamdarrentzat otoitzarako egun berezia. Hori dela eta, bi goierritar berrien kasuan, ostiralean lanetik lehenago ateratzen dira eta larunbatean sartzen dituzte galdutako orduak. “Otoitz egin gabeko bizitza txarra da”, dio Noureddinek.

Goierritar berrien kultura gehiago ulertzearen, musulmanei buruz zer jakin behar ote genukeen galdetu diegu. “Lehenengo eta behin, guztiaren aurretik, pertsona pertsona da, nongoa den kontuan izan gabe. Nik pertsonaren sinisten dut. Norberaren eta bestearen onari nahi izatea da gakoa. Ezin da egoista izan. Niretzako eta bestearentzako onari nahi dut. Jendea ondo tratatu eta eredu ona eman. Bizilagunak, koadrila, lankideak... errespetatu. Guretzat Islama bizitzeko eta besteekin elkarbizitzeko modu bat da. Gure

“Aljeriarrak, marokorak,
pakistandarrak, maliarrak,
senegaldarrak gaude elkarte baten.
Islamak batzen gaitu guztiok”.



Islama

Eszerreko argazkain ageri diren Noureddinek eta Redounek diotenez Islama ezagutzera emateko liburuxkak dituzte Koranaren azalpenarekin. Arabia Saudiko Erregeak ordaintzen ditu eta dohainik banatzen diete arabiar kultura ezagutu nahi dutenei.

Azoka Beasainen

Eskuineko argazkian ikusten den bezala, Goierri Koloreren barruan, Beasainen, azoka berezian parte hartu zuen Al Fajr elkarteak. Bertara hurbildu zirenei izena arabiarrez idatzi zieten, tea banatu zuten, saltxitxak plantxan eta goxokiak ere bai... "Goierri Kolore atea da guretzat, zuen aldizkaria bezala" adierazi dute.

Profetak egin zuen bezala. Islamak erakusten du bizitzako egoera bakoitzean nola jokatu behar den. Gidatzeko daukagu".

Kristautasunak eta islamak antzekotasunak badituztela gogoratu du Redounek. "Islamak, pertsonarengan baino gehiago, Jainkoarengan sinistea agintzen du, pertsona erratu daiteke, pertsonak huts egin dezake, inor ez da perfektua. Horregatik, lehenengo Jainkoarengan pentsatu behar da. Jainkoak egin gaitu eta Jainkoak ondo daki, bizitzeko zer behar dugun. Jainkoaren lana da pertsonak egitea. Beraz, gehiago daki zer komeni zaigun". Adibide bat

jarri du: "Gurasoek hobeto dakite beraien seme-alabei zer datorkien ondo, barruan eta kanpoan zoriontsu izateko, eta arima txarra zuzendu arima ona bihurtu dadin. Besteen ona nahi izatea eta

elkarbizitza ona izatea, Europan musulmanek ematen duten exenplua ona da".

Telebista

Islama ezagutzera emateko liburuxkak badituzte, jakin baitakite, informazio zuzena eta egokia edukitzea gakoetarikoa bat dela. "Irakurtzen duenak ondorioak ateratzen ditu. Gutxi irakurtzen du. Telebistak gezur asko esaten du. Min handia egin digu telebistak. Ez dakit zergatik, baina... Euskaldunek, beste leku batzuekin alderatuz, gehiago jakin nahi du Islamari buruz. Beste leku batzuetan ez dute ezer ere jakin nahi, gorroto handia dago. Arabiarrek 8 mendetan egon direla... Gu, hona, ez gatoz ezertxo ere egitera. Otoitz egitera gatoz,

gure gurasoek egin duten bezala. Horixe egiten dut gure etxean. Zuek hemen, nahi duena Elizara doaz, baina gure gizartean otoitz egiten dugu".

Ramadama, puntuak lortzeko

Islamaren ohiturekin jarraituz, musulmanek egiten duten Ramadama edo baraualdia ezagutzen badugu ere, eta egunero zerbait berria ikasten delako, Noureddinek eta Redouanek bere lezio txo bat eman digute. "Guk fedea daukagu, eta gauzak ondo egiten dituzunean, ondo hitz egiten duzunean, jendea ondo tratatzen duzunean, puntuak lortzen ditugu. Bi aingeru ditugu, bat ezkerrean eta bestea eskuinean. Hiltzen garenean, epaitu egiten gaituzte eta Ramadam garaian lortutako puntuak 60 aldiz gehiago balio dute. Horregatik, jende asko, Ramadam garaian Marokora joaten da puntu gehiago lortzeko. Hemen ez dago pobrerik, dirurik emateko, edo jendea bazkaltzera gonbidatzeko... Horregatik nahiago izaten dute askok Marokora joatea".

"Telebistak gezur asko esaten du. Min handia egin digu, Ez dakit zergatik, baina... Euskaldunek, beste leku batzuekin alderatuz, gehiago jakin nahi du Islamari buruz. "

Beasain

Udazken kulturala

Azaroak 4, osteguna:

19:00etan: Erakusketa: Erretiratuen etxeko eskulanak, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Azaroak 5, ostirala:

18:30ean: Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta.

22:00etan: Antzerkia: Dar-Dar Produkzioak-en 'Etzi' antzez-lana, Usurbe Antzokian.

Azaroak 6, larunbata:

10:00etan: Bertako jeneroen azoka berezia eta ardo azoka, Gernika pasealekuan eta San Martin plazan.

12:00etan: Odolki-dastatzea eta lehiaketa, XXVI. Edizioa, Gernika pasealekuko frontoian eta San Martin plazan

19:00etan: Oskarbi taldearen kontzertua, Igartza jauregian.

Azaroak 7, igandea:

08:00etan: Mendi-irteera Urederra errearen sorburura.

19:00etan: Beasaingo XVIII. Argazki-rallyko sari-banaketa eta aurkeztutako lanen ikustaldia, Udal Batzar Aretoan.

Mutiloa

Txerri azoka, azaroaren 7an

Mutiloarren, azaroaren 7rako antolatu dute III. Txerri Azoka. Txerriarekin lotutako hainbat eta hainbat ekintza izango da, goizean zehar. Jarraian duzue egitaraua:

10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala, trikiti giroan.

Goizean zehar:

- Txerri erretzea.
- Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak.

- Txerri erakusketa.

- Odolki eta txorizo dastaketa.

- Umeak asto gaineen ibiltzeko aukera.

12:00etan: Odolkiak egiteko erakustaldia. Ondoren, erretako txerriaren dastaketa - pintxoak.

14:30ean: Bazkari herrikoa.

III. Mendi astea

Azaroak 8, astelehena:

Arrastaka Mendi Taldeak urtean zehar egindako ekintzen laburpena, 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoa.

Azaroak 9, asteartea:

Aitzgorri Mendizale Elkarateak urtean zehar egindako ekintzen laburpena, 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan.

Azaroak 10, asteazkena:

Felipe Uriarteren, 'Sheshé-ren Herrialdean' ikusentzunezkoa, 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan.

Azaroak 11, osteguna:

Pedro Garcaren 'Everest 2010', 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan.

Azaroak 12, ostirala:

Alberto Zerainen 'Chogoriren bi aurpegiak' 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan.

Azaroak 13 eta 14:

Eskalada praktiak, Antzizar kiroldegiko rokodromoan.

Beasain

Astigarretako jaiak

Astauzel elkarateak, San Martin jaieko ospakizunak antolatu ditu azaroaren 14ako. Jarraian duzue egitaraua:

11:30ean: Meza Nagusia, Beasaingo San Martin parrokiako koruak abestuta.

12:30ean: Aizkolariak: Azurmendi eta Olasagasti

13:30ean: Herri bazkaria. Bazkaria eta ondorengo orduak Goikoetxea eta Joxe Agirre bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikitilariak girotuak izango dira.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

biok

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Goieritik 20 minutura...

Sukaldeak

Zeramikak

Bainugelak

Beheko suak



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29

Lakuntza (Nafarroa)

Tel.: 948 57 60 68



MUTILOAKO III. TXERRI AZOKA 2010eko azaroak 7

ANTOLATZAILEAK:



MYTILOAKO VDALA



10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala trikiti giroan.

Goizean zehar:

- Txerri erretzea.
- Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak
- Txerri erakusketa.
- Odolki eta txorizo dastaketa.
- Urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa.
- Umeak asto gainean ibiltzeko aukera izango dute.

12:00etan: Odolkiak egiteko erakustaldia
Ondoren: Erretako txerriaren dastaketa - pintxoak.

14:30ean: Bazkari herrikoia.

Ordizia

Sustraiez Blai, azaroaren 13an, Ordizian

Sustraiez Blai, munduko kulturen topaketa, Ordizian izango da da aurtien, Sustraiez Blai elkarteak antolatutak. Azaroaren 13an izango da, gaueko 9etatik aurrera, Ordiziako plazan. Dohainik izango da.

Kilema

Kilemarekin hasiko da jaialdia. Kantari, musikagile eta musika-tresna ugari jotzen dituen musikaria da Kilema. Madagaskarko 'Justin Vali Trio'(1994-97) taldearekin lan egin zuen, Peter Gabriel (Womad eta Real World jaialdien sortzailea) ezagunaren eskutik.

La Tropa Kung-Fú

Bartzelonako taldea. Dusminguet taldea desagertu ondoren jaio zen Joan Garriga buru duen La Tropa Kung-Fú taldea. Bi kontzeptuk egiten dute bat La Tropa Kung-Fú taldean: alde batetik, trobak edo koblak, koblari edo trobalari-talde moduan hartu behar baititugu, kubatar trobak du garrantzia batez ere, trobalari-talde bat, musikari-talde bat baita... eta bestetik, kung fu kontzeptua, txinatar kung-futik datorrena.

Luis Camino

Donostian jaioetako perkusionista. 1978an hasi zuen bere karrera artistikoa Izukaitz talde euskaldunarekin izen bereko diskoa grabatuz. 2003an, (oraingo honetan, Luis Camino & Abya Yala izenpean), InDIOSINCRASIA (Nuba Records. Karonte) atera zuen; 2005ean, Luis Camino & Abya Yala-ren Musikisthan (Nuba Records. Karonte) izenekoa; eta 2007an kaleratuko du bere lehen musika-lana Indian, CD formatuan eta Dancing Mantras izenburupean, Arti Vyas, Shoba Harsh eta Rupendra 'Lala' Gopa ji.kantarien laguntzaz.

Iban Nikoloia & The Acoustic Glorius

Ez ohiko musika-tresnak jotzen dituen Euskal Herriko taldea da Acoustic Glorious, baina azpimarragarrienak, zalantzarik gabe, didgeridooa eta kora dira. Lehena, Australiatik datorkiguna eta bigarrena, berriz, Afrikatik. Bi kontinenteak uztartu nahi izan dituzte taldea osatzen dute musikariek, musika originala, harrigarria bezain gustagarria egiteko ahaleginean.

Vaskandombeando

Bilboko perkusio talde hau hamar danborrez eta bandera batez osatua dago. Konpartsa uruguaiarra da, candombe musika egiten duena. Uruguaiar musika estilo bat da candombe, afrikar erritmoak ditu oinarri eta Montevideon sortu zen, XVIII. mendean, esklabutza-garaian, bertako biztanle afrikarrengandik.

Lord Sassafras

Aragoiko taldea. Jorge Gayosoren ezizena da Lord Sassafras eta 30 urtetik gora daramatza musikari gisa lanean. Europa, Afrika, Amerika eta Asiako eszenategiak bisitatu ditu eta bere izena munduko musikari loturik dago, ezinbestean. Bere estiloa definitzeko, 'Mafia mondiale' etiketa erabiltzen du, munduko musikak rocka, funka eta etno-teknoaren arteko nahasketa, alegia.

Zerain

V. Arte plastikoen Goiart 2010 lehiaketa oinarriak kaleratu dira

Ordiziako Udal Kultura sailak, Arte plastikoak sustatu eta zabaltzeko V. arte plastikoen Goiart 2010-Ordizia Sariaren oinarriak kaleratu ditu.

Euskal Herrian jaioetako edo bertan bizi diren artistek parte har dezakete Goiarten. Egile bakoitzeko, gehienez, bi lan onartuko dira. Inolako baldintzarik gabe, ez tamaina, teknika, aurkezpen, gaia... eta abarri dagokionean.

Hiru sari banatuko dira: lehen saria: 3.000 euro; bigarren saria: 1.500 euro; eta hirugarren saria: 900 euro. Goierriko artista onenarentzat 600 euroko saria egongo da.

Lanak, abenduaren 1etik 15a bitartean astelehenetik ostiralera aurkeztu beharko dira, goizeko 10etatik 13era, Barrena Kultur Etxean. Aurkeztutako lanen jendaurreko erakusketa, 2010eko abenduaren 21etik 2011ko urtarrilaren 4ra arte egingo da.

Lazkao

Liluratura, Fernando Morillorekin

Goierriko Euskal Eskolak, Liluratura saio berria antolatu du azaroaren 30erako. Bertan parte hartzeko, baldintza honakoa da: Fernando Morillo idazlearen 'Bilbo Samurai' liburua irakurtzea. Honela, azaroaren 30ean, arratsaldeko 6:30etan, Lazkaoko San Benito Ikastolako aretoan, idazlea bertan dela, liburuari buruz solasean arituko dira bertaratzen direnak.

MENDIKO LARREAK

PASTOS DE MONTAÑA

Artzaintza: funtsezko lanbidea

Abeltzaintzako jardunbide egokiak Aralarren eta Aizkorri-Aratzen

Artzainarena euskaldunon irudi adierazgarrienetako bat da. Milaka urteko historiaren protagonista da, naturarekiko dugun lotura, mitoak eta kondairak gordetzen dituen, desagertzeaz dauden kultura-balioen zaindaria... Artzainak eta abeltzainak dira iraganaren osagai nagusia, baina baita oraina zein etorkizuna ere.

Historiaurretik hona, artzaintzak garrantzia handia izan du lurraldeen bilakaeran eta antolaketa. Neolitiko garaiko lehen etxekotzaileen ondorengo zuzenak dira, gaur egun, Aralar eta Aizkorri-Aratz mendietako larreetan jardura horretan profesionalki dabilzan familiak. Modernitate eta bizitzeko modu berrietara egokitutako jardura bada ere, mendiko larre andana mantentzen laguntzen du, berekin dakartzan onura ekologiko eta soziokulturalekin.

Izan ere, abeltzain-familiak aurrera eramaten duten lana da mendiko larreak kultura-gordailu eta agente ekologiko ordezkaz gisa mantentzea bermatzen duen bakarra. Balio estrategiko horren kontzientzia da beharrezkoa egiten duena artzaintzari babes soziala eta instituzionala ematea.

Badu etorkizunik artzaintzak?

Galdera horren erantzunak baiezkua behar du izan. Azken urteetan, artzaintzak bere horretan jarraitzen du; urritu behintzat ez da egin. Mendiko abeltzaintza sustatzeko eta gazta merkaturatzeko laguntzei esker, artzainek eutsi egiten diote artaldeari eta artzain-lanari.

Baina, agian, berri onena da lanbidearen gizarte-aitortza indartuz doala eta, gainera, estamentu guztietan oihartzu doazela mendiko artzaintza ereduak jardunbidea dela baliabide naturalak aprobetxatzeko. Eredu erabat jasangarria da; animalia-baliabideak eta landare-baliabideak aprobetxatzea ahalbidetzen du giza faktoreak eragindako distortsiorik gabe.

Horrekin batera, Europako hainbat herrialdetan programa publikoak egiten ari dira bai ingurumenaren arloan, bai nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetan, berezko sistema horiek babesteko, kontaezinezko balioa duten talde-ondareetat jotzen baitira.

XXI. mendeko artzaintza

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Ikaskuntzak, Asmoz Fundazioaren bidez, proiektu berritzaileak garatu dute azken bi urtetan, gaur egungo errealitatea eta sektorearen etorkizuneko aukerak ezagutzeko: **Aralar eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaletako larreak zaintzeko eta hobetzeko abeltzaintzako jardunbide egokiak**. Beste ekinetean artean, 162 profesional elkarriketatuta dira jardunbideak, iritziak eta beharrak

Aralar eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaletako abeltzaintzako jardunbide egokiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Ikaskuntzak garatutako proiektuaren barnean aurrera eramandako ekinetza batzuk:

- Balioa, egoera eta jardunbideak zehazteko **8 ikerketa** zeintzuk, kudeaketan parte hartzen duten agente guztiekin lankidetzan, artzaintzako jardunbide egokiei buruzko arauak sortzeko abiapuntu izango diren.
- Aralar eta Aizkorri-Aratz Natura Parkeetan lanean dabilzan profesionalei, beren jardunbideak eta beharrak ezagutzeko **elkarriketak**.
- Artzainei eta abeltzainei eta ingurumen-sektoreko langileei zuzendutako larreak kudeatzeko estrategia egokiei eta IKT berriei buruzko **heziketa**.
- Sentsibilizatzeko **materialak eta edukiak** eta berriazko webgunearen sorketa.
- Larreak zaintzearen eta hobetzearen eta abeltzaintza tradizionala mantentzearen garrantzia **gizarteratzea**. Proiektua eta bere bilakaera zabaltzeko kanpaina, eskuratutako emaitzak batera.

www.mendikolarreak.net



ezagutzeko. Horietatik hainbat ondorio orokor atera dira eta, era berean, XXI. mende hasieran sektoreak duen erradiografia eskaintzen dute.

• Enirio-Aralar Mankomunitateko artzainen eta abeltzainen batez besteko adina 52 urtekoa da; eta 54 urtekoa, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrean.

• Enirio-Aralar Mankomunitateari dagokionean Amezketak eta Zaldibia udalerrietan daude gehienak; Partzuergoko kasuan, aldiz, Zegama eta Zerain udalerrietan.

• Artzaintza eta abeltzaintza jardura oso gogorak dira. Horretan dihardutenek bokazioa behar dela uste dute bizimodu horretan aurrera egiteko.

• Ofizioa belaunaldiz belaunaldi transmititzea gailentzen da. Ohikoa da familiakoek egin beharreko lanetan laguntzea.

• % 53k ondorengoek ofizioarekin jarraitzea nahi dute. Baina, % 30ek nahi bera izan arren, gaur egun sektoreak duen egoera ikusita, nahiago dute beste lanbide batzuetara jotzen badute.

• Itxaropentsua da, ordea, lanbidera inguratzen diren pertsonak ugaritzen ari direla ikustea eta, beraz, azken urtetakobeheranzko joera apurtzen dela.

• Lanbidearekin gustura daude. Askolaguntzen die artzainei eta abeltzainei

gizartearengandik bere lanarekiko nabaritzen duten estimua.

• Alabaina, nahiko zabaldua dagoen iritzi batez ere kezkatzen dira: diru-laguntzetatik bizi direla, alegia. Baina gizarteak ez duela beren ekarpena ikusten edo beren ekoizpenak prezioagatik soilik epaitzen direla ere salatzen dute.

• Sektoreko kideen arteko harremana, oro har, ona da.

• Sektore nahiko profesionalizatu da; askok jardura horretatik soilik bizi direla adierazten dute. Irabazi gehiena haragi ekoizpenetik lortzen dute; atzetik datoz esnearen eta gaztaren salmenta.

• Lau elkarriketatutik batek dio etengabe mendian egoten dela artaldearen alboan. Gainontzekoetatik, erdiak sarritan bisitatzen du astean zehar.

• Sektoreko arazo nagusiak ekonomikoak dira eta, Aralar Mankomunitatearen kasuan, baita bideak hobetzeko beharra ere.

• Bitartekariaren irudia lehiakortasunarentzako oztopo gisa ikusten da. Sektoreak berak merkaturatu beharko lituzke produktuak.

• Profesional gehienek uste dute larreen jasangarritasunari arreta eskaintzea lan garrantzitsua dela ikuspegi kulturaletik, baita ingurumenaren ikuspegitik ere.





Gabiriako boskotea 1958. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Joxe Antonio Apaolaza (Olalkiaga), Martin Irastorza (Urkiztegi) eta Nikolas Etxeberria (Urkiztegi).

Beheko ilaran: Paulo Murua (Alkaintxiki) eta Pio Apaolaza (Olalkiaga).

- ✗ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✗ Komunitateen kontabilitatea
- ✗ Akten idazketa
- ✗ Aurrekontuen eskaera
- ✗ Aholkularitza legala
- ✗ e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

zuhazki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurritan.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



Barroko Aire

XXV. MUSIKA BARROKOAREN EGUNAK

ORDIZIA

ELIZA NAGUSIA - 20:00 h

Azaroak 6 Noviembre
La Colombina

Azaroak 13 Noviembre
Duo Hantaï

Azaroak 20 Noviembre
Ainhua Garmendia

Azaroak 27 Noviembre
Prometeo-Solistas Orquesta Barroca Sevilla



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ordiziako Udala

gomendioak lasaitasuna
kalitatea atsedenean adituak
esperientzia p l a z e r r a
ametsetan



Atsedenarekin amesten al duzu?

Egun luze eta gogorren ondoren atsedena hartu eta indar-berritzea beharrezkoa da. Zure eta zure etxeko atsedena beharrezko errealitate bihurtzen lagunduko dizugu Ametsen...

ATSEDENA PLAZERRA DELAKO!



Nafarroa Etorbidea, 1 Beasain T 943 88 68 51
www.ametsdescanso.com



ATSEDENERAKO SISTEMATAN ADITUAK